

<b>abudo</b> 'aguro, arin'	«Ama, nik <b>abudo</b> bizi nahi dut.»
<b>adats</b> 'ile luzea'	« <b>Adatsa</b> omen zuen, ilunabarrarekin nahasten den horietakoa...»
<b>afera</b> 'arazoa, asuntoa'	«Hitz egin dut <b>afera</b> honetaz...»
<b>ahortu</b> 'agortu, bukatu'	« <b>Ahortu</b> eginen dun ibar iluneko butzua...»
<b>ahurika</b> 'uhurika, uluka, aieneka'	«...eta <b>ahurika</b> hasiko dun...»
<b>aipu</b> 'aipamena'	«...deserriko poeta zaharraren <b>aipua</b> utzi zuen...»
<b>amore eman</b> 'makurtu, horretara jo'	«...bidezkoago iruditu zait ugaritasunari <b>amore ematea</b> ...»
<b>apal</b> 'umila'	«Bere lengoaia <b>apalaren</b> bidez...»
<b>aratz</b> 'garbi'	«...bi izara leunen arteko espazio <b>aratzean</b> .»
<b>arrabitajole</b> 'bibolin jole'	«...Emerson <b>arrabitajole</b> itsua...»
<b>artean</b> 'oraindik (lehen aldia)'	« <b>Artean</b> , lurralde honetako gizasemeek ez zekitenan hizketan...»
<b>asaldatu</b> 'zurtu, harritu'	«...ume mukizu hark, sarritan haundi baten moduan esaten zizkion gauzengatik <b>asaldaturik</b> .»
<b>astindu</b> 'mugitu, eragin'	«...Emiliren gordairuko hautsak <b>astintzean</b> ...»
<b>ausaz</b> 'agian, apika, beharbada'	« <b>Ausaz</b> , ez zuen bere "nitasun"ean sinestuko...»
<b>azarri</b> 'aditasuna / ausardia'	«...ezagutzeko eta baloratzeko <b>azarri</b> gehixeago jarri...»
<b>aztoratu</b> 'kezkatu, arduratu'	«...kolore bi baizen bereizten ez dituelako <b>aztoratua</b> ...»
<b>baizen</b> 'baino, baizik'	«...kolore bi <b>baizen</b> bereizten ez dituelako aztoratua...»
<b>bat bedera</b> 'bakoitza, nor bera'	«... <b>bat bederaren</b> burua gezur hutsa dela adierazi...»
<b>bazka</b> 'janari'	«...sitsen <b>bazka</b> izatera desterratuak...»
<b>behiala</b> 'aspaldi, antzina'	«... <b>behiala</b> unaiek, zaldi tipí basatiak domatu eta...»
<b>benaz</b> 'egiaz, benetan'	«...bere izatea, Emily bera <b>benaz</b> izan zena.»
<b>betierekoan</b> 'eternitatean'	«...mailarik bajuenean igortzen badinat ere, <b>betierekoan</b> iraun dezakeelakoan.»
<b>biharamun</b> 'hurrengo eguna'	« <b>Biharamunean</b> , berehala ohartuko omen zen...»
<b>bikor</b> 'ale, garau'	«Harea <b>bikor</b> batengan mundua ikusteko.»

<b>deus</b> 'ezer (ere ez)'	«Ez zuen inorengandik <b>deus</b> lortu nahirik ere ukan.»
<b>doi-doi</b> 'ozta-ozta'	«...oin mutur horiek (...) <b>doi-doi</b> lurrik ukitzen ez dutela.»
<b>egun</b> 'gaur'	« <b>Egun</b> , oraindik, gauza bera gertatzen da amorante askoren artean.»
<b>ene baitan</b> 'nigan'	«...zalantza gailendu egin da <b>ene baitan</b> .»
<b>entelegatu</b> 'ulertu, konprenitu'	«...herriak ez din <b>entelegatuko</b> zergatik...»
<b>erdietsi</b> 'lortu'	«Inork ez du <b>erdietsiko</b> nire burua txoil deskribatzerik...»
<b>erdiragarri</b> 'urragarri'	«...sarritan izaten zituen sublimazioaldi <b>erdiragarri</b> haietan.»
<b>eriden</b> 'idoro, aurkitu, kausitu'	«Hona zer <b>eriden</b> dudan bere eskritorioko paperetan...»
<b>estali</b> 'tapatu'	«...herri ozpel hura zuriz <b>estalarik</b> ...»
<b>estraineko</b> 'arraro, ezohizko'	«...baina <b>estraineko</b> gauzaren bat gertatzen da...»
<b>ezkila</b> 'kanpai'	« <b>Ezkila</b> bernakor eta kamomilaz.»
<b>fatu</b> 'zori, adur, zorte'	«...poeta frustratu baten <b>fatua</b> ...»
<b>gailendu</b> 'nagusitu'	«...zalantza <b>gailendu</b> egin da ene baitan.»
<b>gainazpi irauli</b> 'erabat aldrebestu, bueltatu'	«...bere gorputz tipia <b>gainazpi iraultzen</b> zenean...»
<b>gatibatu</b> 'menperatu, bere egin'	«...benebolentziaz <b>gatibatzen</b> zutenak.»
<b>goibeldu</b> 'ilundu, tristetu'	«...zerua guztiz <b>goibeltzen</b> zela ikusten zuenean.»
<b>golde</b> 'nekazal tresna'	«...saihestu itsasoko menturak eta har ezak <b>goldea</b> ...»
<b>gorazarre</b> 'ohore'	«...pinuari <b>gorazarre</b> egiten zioneko bere guztizko poema...»
<b>gotor</b> 'sendo. indartsu, boteretsu'	«...errege <b>gotorren</b> baten egoitza izana zen...»
<b>gutizia</b> 'desira'	«...inoren <b>gutiziak</b> beteaz sosak galtzeko...»
<b>guziz bestela</b> 'alderantziz'	«...poeman esaten duenaz <b>guziz bestela</b> ...»
<b>guztizko</b> 'bikain, perfektu'	«...pinuari gorazarre egiten zioneko bere <b>guztizko</b> poema...»
<b>haizutasun</b> 'zilegitasun, aukera'	«...egunero garena izatera behartzen gaituen <b>haizutasunean</b> baino.»
<b>harramazka</b> 'erpakada'	«...behin batez isats muturra harrapatu nionan hankapean, eta haren ordu-ko <b>harramazka</b> izan hunan (...) mingarriena.»

<b>hautatu</b> 'aukeratu'	«Poema ez dun nik <b>hautatua</b> .»
<b>honaraino eginda</b> 'honaino eginda, aspertuta'	«...itzulpenak egiteaz <b>honaraino eginda</b> natxon.»
<b>horditu</b> 'mozkortu, atxurtu'	«...elkarrekin ibiliak gintunan, elkarrekin <b>hordituak</b> .»
<b>ignominia</b> 'ahaztura'	«...ene zorigaitza eta <b>ignominia</b> mingarri hau...»
<b>igorri</b> 'bidali'	«...mailarik bajuenean <b>igortzen</b> badinat ere, betierekoan iraun dezakeelakoan.»
<b>ilaberritu</b> 'zuzendu, arteztu'	«...pentsamendua orrazatu eta ilaberritu egiten baita...»
<b>ilbeltza</b> 'urtarrila'	« <b>Ilbeltzak</b> 30.»
<b>ilenti</b> 'egur zati gorria'	«Done Laurenti, esku batean euri eta bestean <b>ilenti</b> .»
<b>ingurumari</b> 'ingurua'	«... <b>ingurumariko</b> miserablekeria asko gogoan hartzen hasia zen.»
<b>isats</b> 'buztan'	«...behin batez <b>isats</b> muturra harrapatu nionan hankapean, eta haren ordu-ko harramazka izan hunan (...) mingarriena.»
<b>izu</b> 'beldur, ikara'	«...gu geu baino handiagoa den <b>izuak</b> menpera ez gaitzan...»
<b>kazkabarra</b> 'harri, txingor, inetasi'	«Han hemenka <b>kazkabarra</b> ere egin zinan...»
<b>kurrilo</b> 'hanka luzedun hegaztia(grulla)'	«Baina, ez ditun <b>kurriloak</b> ...»
<b>kuzkurtu</b> 'makurtu'	«Imajinatuko duzue, ezta, gizajoa (...) ate ondoan <b>kuzkurtua</b> .»
<b>laborari</b> 'nekazari, lur langile'	«...Palazio Grisera lagundu zion <b>laborari</b> gazte batek...»
<b>lats</b> 'errekasto'	«...garbia eta purua den odol <b>lats</b> hartan.»
<b>lermatu</b> 'eskastu, urritu'	«...gure lengoia, ordea, honetan ere <b>lermatua</b> ageri da.»
<b>lizun</b> 'zantar, lohi'	«...inork entzun ez zituen hitz <b>lizun</b> haiek ahotan...»
<b>maindire</b> 'izara'	«...ohe zuriko <b>maindire</b> leun haien isiltasuna...»
<b>malda</b> 'aldapa'	«...gau ilunean <b>maldan</b> behera zetozkion...»
<b>mentura</b> 'zoria, zortea'	«...saihestu itsasoko <b>menturak</b> eta har ezak goldea...»
<b>miru</b> 'hegazti harraparia'	«Bai, <b>miruak</b> ditun, nabari dinat beren hegan egiteko modu sotilean.»
<b>morrontza</b> 'menpekotasun, zerbitzu'	«...isiltasun traidore baten <b>morrontzan</b> ...»
<b>mukizu</b> 'mokotia'	«...ume <b>mukizu</b> hark, sarritan haundi baten moduan esaten zizkion gauzengatik asalaturik.»

<b>murriztu</b> 'urritu, eskastu'	«...etengabeen <b>murriztuz</b> doa gure bizitza espiritualala...»
<b>naharo</b> 'ugari, eskerga'	«...lan <b>naharo</b> eta bateratua...»
<b>ninfatiko</b> 'ninfa joerak dituen'	«...kreatura <b>ninfatiko</b> hura.»
<b>oinaze</b> 'sufirimendu'	«...lurretik zetorkion <b>oinazegatik</b> ...»
<b>orrazatu</b> 'orraztu, egokitu'	«...pentsamendua <b>orrazatu</b> eta ilaberritu egiten baita...»
<b>ozpel</b> 'ainube, laiotz, eguzki gabea'	«...herri <b>ozpel</b> hura zuriz estalirik...»
<b>palentia</b> 'ausarkeria, balentria'	«Gisa honetako <b>palentia</b> sarritan egin omen zituen.»
<b>pats</b> 'blai, busti-bustirik'	«...izerdi <b>patsetan</b> ari zela.»
<b>saihestu</b> 'alderatu, alboratu'	«... <b>saihestu</b> itsasoko menturak eta har ezak goldea...»
<b>sena</b> 'izaera, tankera'	«Amaren <b>sena</b> zekarren alaba ederrak ere...»
<b>sibila</b> 'misteriotsua'	«...andere <b>sibila</b> honen bizitza ikertzen.»
<b>sibilitiko</b> 'misteriotsu'	«...une harrigarri eta <b>sibilitiko</b> hari zegokiola.»
<b>sits</b> 'bipi, intsektu egur jale'	«... <b>sitsen</b> bazka izatera desterratuak...»
<b>sos</b> 'diru'	«...inoren gutiziak beteaz <b>sosak</b> galtzeko...»
<b>sotil</b> 'lerden, eder'	«Bai, miruak ditun, nabari dinaten beren hegan egiteko modu <b>sotilean</b> .»
<b>tinko</b> 'irme'	«...bizitza <b>tinko</b> eta seguru bat eraman nahi baduzu...»
<b>txint</b> 'kexu'	«Ez omen zuen <b>txintik</b> ere atera amak...»
<b>txoil</b> 'garbi'	«Inork ez du erdietsiko nire burua <b>txoil</b> deskribatzerik...»
<b>tzar</b> 'handi'	«...harri <b>tzar</b> haiekin zerbait egin beharra zegoela...»
<b>unai</b> 'betzain'	«...behiala <b>unaiek</b> zaldi tipi basatiak domatu eta...»
<b>unatu</b> 'nekatu'	«...harri tipi hartako laborari <b>unatuez</b> urrikaldurik...»
<b>urgunka</b> 'herrenka'	«...hainbeste bide <b>urgunka</b> eta neketan egin ondoren...»
<b>xarma</b> 'enkantu, eztitasun'	«...nabari da pikara baten <b>xarma</b> ...»
<b>xuxurlatu</b> 'ahapeka esan, isilean'	«...hala <b>xuxurlatu</b> omen zuen Emily tipiak...»

<b>zabarkeria</b> 'utzikeria'	«...gutun txar batean lau hitz jartzeko <b>zabarkeriaz</b> .»
<b>zekendu</b> 'gogortu, idortu'	«...mahastiek lurra <b>zekentzen</b> zuten garaian.»
<b>zepel</b> 'beldurti'	«Aditzen al duk, demonio <b>zepela!</b> »
<b>zerena</b> 'lamia, itsas neska'	«Uretako zerena behar hunan hik, uretako <b>zerena!</b> »